

ELGOIBARKO MAISUEN NAZIOARTEKO XX. XAKE TXAPELKETA. (SUSTAPENERAKO TXAPELKETA). (2010eko abenduaren 14tik 21era).

FIDE ELOEN BILAKAERA.

- 1) **David Lariño Nieto (Galizia) (2.451) – 18'2 gehiago.**
- 2) **Mikel Huerga Leatxe (Nafarroa, Euskal Herria) (2.415) – 18'1 gehiago.**
- 3) **Alejandro Franco Alonso (Espainia, Donostiako Gros Xake Taldekoa) (2.475) – 10'2 gehiago.**
- 4) Azer Mirzoev (Azerbaijan) (2.546) – 5'5 gehiago.
- 5) Miguel Muñoz Pantoja (Peru) (2.508) – 0'5 gehiago.
- 6) Oleg Korneev (Errusia) (2.582) – 9'2 gutxiago.
- 7) **Iñigo Argandoña Riveiro (Gipuzkoa, Euskal Herria) (2.397) – 9'5 gutxiago.**
- 8) Zenon Franco Ocampo (Paraguay) (2.517) – 10'6 gutxiago.
- 9) Dragan Paunovic (Serbia) (2.526) – 11'7 gutxiago.
- 10) **David Astasio Lopez (Araba, Euskal Herria) (2.332) – 17'3 gutxiago.**

DAVID LARIÑOREN TORNEOA.

David Lariño Nietok Maisu Handiaren bigarren norma lortu du.

Azer Mirzoevek Torneoa bereganatu arren, **David Lariño** galiziarra izan da Torneoaren izarra. Puntuz berdinduta bukatu dute, baina **Mirzoevek** elo igoera apala izan duen bitartean, **Lariño** izan da elo gorakadarik handiena izan duena: 18'2 puntu. Hori gutxi balitz, Maisu Handia bihurtzeko bere bigarren norma lortu du.

Mikel Huergaren Torneoa nahiko ona izan da, baina askoz hobea izanen zen azken aurreko partidaren huts egin izan ez balu. Torneo txarra egiten ari zen Oleg Korneev, baina partida horretan esnatu zen eta beltzekin irabazi zuen. Iazko garaipena errepikatzeko ametsa hortxe lurrindu zitzaion **Mikel Huergari**. Dena den, eloa nabarmen hobetu du: 18'1 puntu.

Alejandro Franco izan da lan azpimarragarria egin duen beste bat. 10'2 puntu hobetu du eloa eta hirugarren postua eskuratu. Zazpigarren partida galdu zuen **David Lariñoren** aurka. Partida horrek **Lariñoren** arrakasta finkatu zuen eta **Alejandro Francoren** jarduna apaldu. Alderantzizko emaitza izan balitz, **Alejandro Francok** Maisu Handiaren norma ospatuko luke une honetan.

Miguel Muñoz Pantojak ozta-ozta eutsi zion bere eloari. Partida bakarra galdu zuen: Zortzigarrena, **Alejandro Francoren** aurka.

Torneo guztietan lan ona egiten dutenak dauden bezala, lan ez hain ona egiten dutenak badira. Kirolaren legea da. Kasu honetan, bost xakelari izan ziren etxera pozik joan ez zirenak.

Oleg Korneev, Torneoa 6 aldiz irabazi ondoren, ez zuen espero izanen bosgarren postuan amaitzea. Baina halaxe gertatu zaio. Gainera, eloan 9'2 puntuko galera izan du.

Iñigo Argandoña ikusgarri hasi zen: Oleg Korneev lehenengo zerrendaburuari irabazi zion eta Dragan Paunovic hirugarren zerrendaburuarekin berdindu. Gogoratzeko moduko Torneoa zirudiena hirugarren partidan hasi zen okertzen: **Mikel Huergaren** aurka galdu zuen. Hortik aurrera, beste 5 porrot eta garaipen bakarra (**David Astasio** azken sailkatuaren aurka). 9'5 puntu galdu ditu eloan. Bukaerak ez du zer ikusirik izan hasierarekin.

Zenon Francoren jarduna nahiko hitsa izan da. **Iñigo Argandoñaren** aurka lortu zuen garaipen bakarra. Bi porrot besterik ez, baina sailkapeneko beheko aldean beti ibilita. Azkenean, eloko 10'6 puntu utzi ditu Elgoibarren.

Dragan Paunovic zortzigarren amaitzea eta puntuen erdiak ez lortzea ustekabea izan da. 11'7 puntu galdu ditu eloan.

David Astasio zailen zuena zen. Baina horrek ez du zuritzen egindako lan eskasa. 1'5 puntu besterik ez ateratzeak ondorioa izan du: Eloko 17'3 puntuko galera.

TXAPELKETA HONETAKO GARAILEAK.

- 1991. urtean, I. edizioan: **Zenon Franco Ocampos** (Paraguay).
- 1992. urtean, II. edizioan: **Elizbar Ubilava** (Georgia).
- 1993. urtean, III. edizioan: **Gilberto Milos** (Brasil).
- 1994. urtean, IV. edizioan: **Reynaldo Vera** (Kuba).
- 1995. urtean, V. edizioan: **Marcelino Sion Castro** (Espainia).
- 1996. urtean, VI. edizioan: **Felix Izeta Txabarri** (Gipuzkoa, Euskal Herria).
- 1997. urtean, VII. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 1998. urtean, VIII. edizioan: **John Van der Wiel** (Herbehereak).
- 1999. urtean, IX. edizioan: **Juan Mario Gomez Esteban** (Bizkaia, Euskal Herria).
- 2000. urtean, X. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 2001. urtean, XI. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 2002. urtean, XII. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 2003. urtean, XIII. edizioan: **Horacio Saldaño** (Argentina).
- 2004. urtean, XIV. edizioan: **Ivan Cheparinov** (Bulgaria).
- 2005. urtean, XV. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 2006. urtean, XVI. edizioan: **Azer Mirzoev** (Azerbaijan).
- 2007. urtean, XVII. edizioan: **Kamil Milton** (Polonia).
- 2008. urtean, XVIII. edizioan: **Oleg Korneev** (Errusia).
- 2009. urtean, XIX. edizioan: **Mikel Huerga Leatxe** (Nafarroa, Euskal Herria).
- 2010. urtean, XX. edizioan: **Azer Mirzoev** (Azerbaijan).

PALMARESA.

- 1) Oleg Korneev (Errusia) – 6 garaipen.**
- 2) Azer Mirzoev (Azerbaijan) – 2 garaipen.
- 3) Zenon Franco (Paraguay) – Garaipen bat.
- 4) Elizbar Ubilava (Georgia) – Garaipen bat.
- 5) Gilberto Milos (Brasil) – Garaipen bat.
- 6) Reynaldo Vera (Kuba) – Garaipen bat.
- 7) Marcelino Sion Castro (Espainia) – Garaipen bat.
- 8) Felix Izeta Txabarri (Gipuzkoa, Euskal Herria) – Garaipen bat.**

9) John Van der Wiel (Herbehereak) – Garaipen bat.

10) Juan Mario Gomez Esteban (Bizkaia, Euskal Herria) – Garaipen bat.

11) Horacio Saldaño (Argentina) – Garaipen bat.

12) Ivan Cheparinov (Bulgaria) – Garaipen bat.

13) Kamil Milton (Polonia) – Garaipen bat.

14) Mikel Huerga Leatxe (Nafarroa, Euskal Herria) – Garaipen bat.

2010-12-21.

Iturria: Euskal Xake Federakuntza.